


JARDUERA FISIKORAKO ETA KIROLERAKO JARRAIBIDEAK COVID-19AREN PANDEMIA – 0 FASEA





EUSKADI
BASQUE COUNTRY



JARDUERA FISIKORAKO ETA KIROLERAKO JARRAIBIDEAK COVID-19AREN PANDEMIA – 0 FASEA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Liga profesionaletako kirolariak:	Liga profesionaletako kirolariak. (Futboleko lehengo eta bigarren maila eta Saskibaloiko ACB Liga)
Kirolari profesionalak	Kirolari profesionalen lan-harreman berezia arautzen duen ekainaren 26ko 1006/1985 Errege Dekretuko kontratu-jarraibideetan sartutako kirolariak.
Goi Mailako Kirolariak (GMK)	Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak ezarritako baldintzak betetzen dituzten kirolariak. (Euskal Herria)
Kirolari federatuak	Federazioaren lizentzia indarrean duten kirolariak.

Saltoki eta zerbitzu jakin batzuk jendearentzat irekitzeko, artxiboak irekitzeko eta kirol profesionala eta federatua egiteko baldintzak ezartzen dituen maiatzaren 3ko SND/388/2020 Aginduan jasotako kategoriak.



Liga profesionaletako kirolariak: Futboleko lehenengo eta bigarren maila Saskibaloia ACB Liga	Liga profesional batean parte hartzen duen talde bateko jokalari izatea egiaztatzen duen kirol-lizentzia izango da egiaztagiria edo baimena.
Kirolari profesionalak (ED 1006/1985):	Kirolari profesionalaren indarreko kontratua izango da egiaztagiria.

*Partikular batek agiri publikoa faltsutzea Zigor Kodean dago araututa, 392. artikuluan, eta partikularrak agiri publikoa, ofiziala edo merkataritzakoa faltsutzearen delitua jasotzen du.



<p>Goi mailako kirolariak (GMK) (Goi Mailako Kirolari buruzko 203/2010 Dekretua)</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Egiaztatu GMK kategoria duzun eta horren indarraldia <div data-bbox="988 492 2349 628" style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> https://www.euskadi.eus/deportistas-tecnicos-tecnicas-y-jueces-juezas-de-alto-nivel/web01-a2kirola/es/ </div> 2. Eusko Jaurlaritzak emandako ziurtagiria.
<p>Federazio-lizentzia duten kirolariak (adina zeinahi dela ere)</p>	<p>2019-20 edo 2020 denboraldian indarrean dagoen federazio-lizentzia hartuko da baliozko ziurtagiritzat edo baimentzat.</p>

*Partikular batek agiri publikoa faltsutzea Zigor Kodean dago araututa, 392. artikuluan, eta partikularrak agiri publikoa, ofiziala edo merkataritzakoa faltsutzearen delitua jasotzen du.



- **Kirolari profesionalak, GMK.**
 - Banakako entrenamendua aire zabalean (instalazioetan ez)
 - Ordu-tegi mugarik gabe
 - Probintzia barruan
 - Entrenatzaile batekin lan egiteko aukera
 - Sarbide librea natura gunetara, jarduera garatzeko
- Federazio-lizentzia duten kirolariak (adina zeinahi dela ere)
 - Banakako entrenamendua bi ordu-tarteetan
 - Udallerri barruan



- Errendimendu Handiko Kirolaria izatea Eusko Jaurlaritzak foru aldundiekin koordinatuta ematen duen kategoria da.
- Kategoria hori federazio-lizentzia duten kirolarien kategorian sartzen da, 0 fase honetan.
- I fasean hartuko da kontuan.

- Futboleko Lehen Mailako Liga
- Futboleko Bigarren Mailako Liga
- Saskibaloiko Lehen Mailako Liga



SND/380/2020 Aginduaren 4.2 artikulua xedatu bezala:

*"2. **Ezin izango da kirol-instalazio** itxietara **sartu** agindu honetan aurreikusitako jarduerak egiteko"*

<https://www.boe.es/eli/es/o/2020/04/30/snd380/dof/spa/pdf>

Deseskalatzearen **0 fasean**, bi salbuespen bakarrik daude aire zabaleko instalazioen erabilerari dagokionez.
SND/388/2020 Agindua,

9.1 artikulua.

1. [...] *Hala ere, **egiten den kirol-modalitatean animaliek parte hartzen badute**, aire zabalean egin ahal izango da, banaka, **animaliak dauden lekuan**, aurrez hitzordua eskatuta eta denbora-tarte berean.*

10.1 artikulua. *Liga profesionaletako kirolarien oinarrizko entrenamendua.*

[...] *Agindu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, oinarrizko entrenamendutzat hartuko da klubek edo kirol-sozietate anonimoek dituzten **entrenamendu-zentroetan egindako** banakako entrenamendua, kirol-modalitate bakoitzaren premia berezietara egokitutakoa.*

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/05/03/pdfs/BOE-A-2020-4793.pdf>

Zer egin dezakete federazio-lizentzia duten 14 urtetik beherakoek?

- Banaka eta aire zabalean egin ahalko dute kirola (instalazioetan ez), ezarritako ordutarteetan egunean bitan, udalerrri barruan eta entrenatzailerik gabe.
- Hau da, federazio-lizentzia duten gainerako kirolariek dituzten pribilegioak dituzte.

- Entrenatzaileek euren federazio-lizentziarekin egiazta dezakete, eta beti bere egiaztagiria edo baimena eramango duen goi mailako kirolariarekin edo kirolari profesionalarekin egonda.
- Dagokion kirol federazioak gaitasuna du egiaztagiri osagarri bat egiteko, egoki baderitzo.



Federazio-lizentzia duen kirolariak ezin du bere kirol jarduera entrenatzaile batekin egin.
Kirolari profesionalek eta GMKek besterik ez.

- Bai, helburu horretarako besterik ez, zure jarduera egiteko natura gunera (ibaia, itsasoa, mendia, aintzira eta abar) edo animaliak dauden zentro batera joateko, Ministerioaren SND 388/2020 Aginduak jasotako lurralde mugekin, betiere. Gainerako kasuetan ez da gomendatzen.



Kirolari profesional edo GMK gisa, **zure probintziaren mugen barruan.**



Federazio-lizentzia duen kirolari gisa, **zure udalerraren mugen barruan.**

- Bai, baldin eta udal agintaritzak dagozkion arrazoiengatik eta bere eskumenen barruan sarbidea mugatzen ez badu.

- Bai, kirolari motari eta lurralde mugikortasunari dagozkien mugekin, eta ibilgailu horien inguruko segurtasun eta zirkulazio arauak, ingurumen arauak, eta ibilgailu horien erabilerarako, oro har, aplikagarri diren guztiak kontuan hartuta.


Federazio-lizentzia duten beste figura batzuk (teknikariak, arbitroak) barne egongo lirateke maiatzaren 3ko SND/388/2020 Aginduaren esparru subjektiboari dagokionez?

- Bai. Euren federazio-lizentziaren bidez egiaztatu beharko lukete euren federatu izaera, eta federazio-lizentzia duten kolektiboetako kideek dituzten pribilegioak edukiko lituzkete.

- Ez. Kasu horretan, gidariek federazio-lizentzia eduki behar dute laguntzaile gisa, eta une oro bete behar dituzte osasun jarraibideak.

SND/388/2020 Agindua, III. kapitulua, 8.2 artikulua

2. Artikulu honetan aipatzen diren kirolariek, kirol egokituko edo paralinpikoko modalitateak egiten dituztenek, beste kirolari baten laguntza eduki ahal izango dute beren kirol-jarduera egiteko, hori ezinbestekoa bada. Kasu horretan, pertsonen arteko segurtasun-tarteak kirola egiteko behar beste murriztuko dira; biek maskara erabili beharko dute, eta egoki irizitako neurriak aplikatuko dira, kasu bakoitzean dagokion higiene pertsonala eta arnas etiketa bermatzeko

- 
- A decorative horizontal bar consisting of five segments: red, green, white, green, and red.
- 2 metroko tartea, bizikletak, patinak edo antzeko elementuak erabili behar badira izan ezik. Kasu horretan, 10 metrokoa izango da tartea. Tarte horiek ez dira eskatuko desgaitasunen bat duten kirolarien kasuan.

- Maiz egiten diren galderen (FAQ) dokumentu espezifiko bat egiten ari dira I faserako.
- BOEn 20/05/06an argitaratutako protokoloa oinarri hartuta. <https://www.boe.es/boe/dias/2020/05/06/pdfs/BOE-A-2020-4837.pdf>

Ebazpena, 2020ko maiatzaren 4koa, Kirol Kontseilu Goreneko Lehendakaritzarena, entrenamenduetara itzultzeko eta lehiaketa federatu eta profesionalei ekiteko oinarriko jarduera-protokoloa onartzen duena.

- Ondorengo FAQak aurreratuko ditugu.

- Entrenamendu-zentroek beharrezko txandak ezarriko dituzte, eta txanda baten eta bestearen artean garbiketa eta desinfekzio lanak egingo dituzte. Horrekin batera:
 - Sarrera bereziak eta kontrol-guneak ezarriko dituzte
 - Material desinfektatzaile eta isolatzaileak eduki beharko dituzte
 - Beti gorde beharko dituzte segurtasun tarteak eta intzidentzia kontrolak egingo dituzte
 - Koordinatzaile bat eta osasun arloko arduradun bat edukiko dute

Lehen fase horren hasieran, klubeko, federazioko edo entrenamendu-zentroko osasun zerbitzuek, dagokionaren arabera, hasierako kirol-azterketa medikoa egin eta fitxa ireki beharko diote kirolariari, medikuaren eta kirolaren praktikak adierazten duen bezala.

Osasun arloko profesionalak 2020an zehar kirolariaren osasunean, oro har, gertatutakoaren jarraipen berezia egingo dute, bereziki COVID-19 birusaren zantzuak, sintomak, efektuak edo ondorioak identifikatzera bideratuta.

Hasierako osasun azterketa horretan, material genetiko biralaren presentziari buruzko proba bat (testa) sartuko da (PCR bidez zabaltzea eta identifikatzea), baldin eta osasun azterketak eta kirolariaren sintomatologiak hori egitea komeni dela ondorioztatzen badute.

PCR proba batean positibo ematen duten kirolariek baina sintomarik ez dutenek ezingo dute kirola egiten hasi PCR proban negatiboak izan arte.

Pertsona kalteberen edo sentikorren kasuan, areagotu egingo da arreta sintomak agertzen badira, eta prebentzio-neurriak hartu beharko dira.

Nolanahi ere, zehatz-mehatz jarraitu beharko zaio Osasun Ministerioaren prozedurari, aipatutako estekan zehaztutakoari:

https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Procedimiento_COVID_19.pdf.

Entrenamendua agintzeko, balorazio funtzionaleko laborategiko probak saihestuko dira. Horien orde, balorazio funtzionaleko probak egin ahal izango dira kirolen eremuan, banaka.

Oro har, ez da masaje tratamendurik edo antzeko fisioterapiarik egingo. Behar-beharrezko fisioterapia-zerbitzuak bakarrik egingo dira, lesioak saihesteko baino ez, prebentzio-estandar gorenei eutsiz.

Euren klubean, federazioan edo entrenamendu-zentroan osasun-zerbitzurik ez duten kirolariek gorputz-hezkuntzako eta kirol medikuntzan espezializatutako mediku bat bilatu beharko dute, berriro lanean hasteko fase guztietan azter eta aholka diezaien, edo, bestela, kirolean osasun esperientzia egiaztatua duen profesional bat.



Zehatz-mehatz bete beharko da Osasun Ministerioaren prozedura.

SND/380/2020 Agindua, apirilaren 30ekoa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdian aire zabalean jarduera fisiko ez-profesionala egiteko baldintzei buruzkoa.

<https://www.boe.es/eli/es/o/2020/04/30/snd380/dof/spa/pdf>

SND/388/2020 Agindua, maiatzaren 3koa, saltoki eta zerbitzu jakin batzuk jendearentzat irekitzeko, artxiboak irekitzeko eta kirol profesionala eta federatua egiteko baldintzak ezartzen dituena.

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/05/03/pdfs/BOE-A-2020-4793.pdf>

1006/1985 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, kirolari profesionalen lan-harreman berezia arautzen duena.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/1985/BOE-A-1985-12313-consolidado.pdf>

203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, goi mailako kirolari buruzkoa.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/goimaila_araudiak/es_def/adjuntos/Decreto%20Alto%20nivel.pdf

Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuentzako jarduera-protokoloa, SARS-CoV-2aren esposizioaren aurrean
https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/PrevencionRRL_COVID-19.pdf

Ebazpena, 2020ko maiatzaren 4koa, oinarritzko osasun protokoloari buruzkoa

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/05/06/pdfs/BOE-A-2020-4837.pdf>